



## Leitzarrak garaile Herri Arteko Txapelketan

TOLOSA ▶

**Giro bustia, baina eskaintza zabala**

Produktu aukera atzoko azokan ▶ 4

**LEITZA ▶** Uharteren aurka irabazi zuten Iruñeko Labrit pilotalekuan atzo jokatu zuten finalean

**JARRAITZAILEAK ▶** Leitzatik eta Aresotik bi autobus joan ziren leitzarrei animoak ematera ▶ 5

**Giro polita San Fermin Txiki jaien azken egunean**

**TOLOSA ▶** Jende ugari bildu zen Plaza Berrian; lurramendi auzoan ere ospatu dituzte jaiak ▶ 4

**TOLOSA ▶**

**Herri-kontsulta bultzatzeko sinadura bilketa**

«Konponbiderako errezeta berria» abiarazi du Lokarrik ▶ 5



Triangulon, atzo. N. URBIZU



N. URBIZU/HITZA



**NEREAZ**

1962-2007  
Lentzeria

Gizonezko eta emakumezkoentzat

**LIKIDAZIOA**  
(Jubilazioagatik)  
prezio ezin hobekak!

Pijamak • Kamisoiak • Kamisetak  
Batoiak • Pikardiak • Tangak • Bodiak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

## IRUDI ZAHARRA ▶



## 1950eko hamarkadan hasi ziren Tolosako Alde Zaharrean sanferminak ospatzen

**Erredakzioa** ▶ Herenegun eta atzo San Fermin Txiki jaiak ospatu zituzten Tolosako Alde Zaharreko Bizilagunek antolatuta. Hirugarren urtez jarraian ospatu dituzte aurtengoarekin, eta batez ere gaztetxoek ederki igaro dute, aurtengain zeren berriak estreinatuta dituztelarik. Baina festa hauek ez dira ez berriak Tolosan, 50. hamarkadan ere ospatzen baitzituzten goiko irudietan ikus daitekeen bezala. Erre-mentari kaleko 38. zenbakian zegoen El Tuerto tabernako jabea Jose Villanueva ar-

taxonarra zen. Lehen tabernetan ohitura handia zegoen katxutxora jokatzeko, eta hortik taberna horretan Katxutxo peña sortu zuten, 12 kide inguruk osatua. Hauek hasi ziren sanferminak ospatzen. Hainbat ekitaldi antolatzen zituzten, eta horien artean pisu handiena katxutxo lehiaketak izaten zuten. Honetaz gain, beste hainbat lehiaketa, zinema, bazkariak, jolasak, musika... ere izaten zen. «Oso giro polita» izaten zela diote festa hauek garai hartan bizi izan zituztenek. HITZA

## urteurrena ▶



**Maria Jesus Lonbide Egibar**  
(I. urteurrena)

Gogoan zaitugu

Zure koadrilak

ZARAUZEN, 2007ko uztailaren 8an

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## SANFERMINAK ▶



Eusko Labela duen hegaluzea eta hegamotoza txingarrean erre zituzten pinxoak zerbitzatzeko. N. URBIZU

## Zapi gorriei agur esateko, giroa beroa

Plaza Berrian hegaluzea eta hegamotoza dastatzeko aukera zegoen bitartean, lurramendin puzgarriak izan dira onenak

## NEREA URBIZU

Tolosako Plaza Berrian San Fermin Txiki jaia ospatzen dute duela hiru urtetik, Alde Zaharreko Bizilagunak elkarteak antolatuta. Aurten, hilaren 7a larunbata izatearekin, eta eguraldia lagun, jendea hurbildu zen atzo bertara. Hegaluzea eta hegamotoz pintxoak zeuden

prestatzen eguzkipean, Tolosako sanferminei agur esateko egunean.

12:30ak aldera jende gehiago ibili zen bertan, baina 12:15 aldera, Abastosetik buruhandiak atera ziren zorroa eskuan, suziri pare baten banbatekoa entzun ondoren. Baten bat izutu egin zen baina laster galdu zuten bildurra txikienean ere. 5

minutu lehenago hegaluzea xerak txingarretan jarri zituzten, poliki-poliki, ondoren zerbitzatu hasteko. Eusko Labela zuten produktua askok dastatu zuten. Alde Zaharreko sanfer-

minak aprobetxatuz, Kalitatea fundazioak eta Tolosako Udalak, Burruntzaileta bizilagunen elkartearen laguntzarekin antolatuta dastaketa.

Txikiendako oparitzoak ere izan ziren: arpegrako arrain mozturroak, pegatinak... Arratsaldean haur jolasak izan ziren, eta hilaren 14an Iruñian egiten den bezala *Pobre de mi* ere egin zuten iluntzean.

Herenegun, Iruñian suzuria bota zutenean Tolosako Alde Zaharrean ere egin zuten. Arratsaldean, berriz, entzierro txikia, aurreko urteetan egiten ez zutena, alegia.

## lurramendin ere bai

Ez da, ordea, sanfermin Txikia ospatzen den Tolosako txoko bakarra Alde Zaharrekoa, ia bezala, aurten ere Iurramendi auzokoek ospatu baitute ere, ostiralean, hain zuzen.

«Sekulako eztabadaun txupinazoa bota ondoren, lau zeren bixkorrek parte hartu zuten entzierro arriskutsuan», esan zuten bertan zeudenek. Baina, azkenean DYAKoek esan zuten, «ez zen adarkadaz zauriturik izan».

Umeentzako puzgarriak izan ziren arratsalde osoan, eta bukatzeko, afora prestatu zuten. Guztira 110 lagun inguru izan ziren, sagardo kupela ondoan zutela, gaugiroaz gozatu zutenak. Bukatzeko, gaztetxoek ederki landutako koreografi aberats bat dantzatu zuten plaza, ikusleen harridurarako. Zer izango ote da 2008an?

## AZOKA ▶

## Giro bustia udan, baina eskaintza zabalarekin



Zizen postu bat atzo. P. ALBERDI

## PABLO ALBERDI

Giro nahasia izan genuen atzo Tolosako azokan. Eguna lainotsua eta bustia argitu zen, eta nahiz eta pixkanaka txukundu, giroa ez zen beste egun eguzkitsukoan antzekoa izan.

Eskaintza, ordea, zabala izan zen. Kanpo libreko bainak, puri-purian dagoen tomate, Ibarrako piparrak, mota askotako letxugak, espinakak, pipar berdeak edota azkeneko ilarrak izan ziren nagusi atzo Tolosan, beste askoren artean.

Perretxiko eta onddo zerranda ere oso zabala izan zen. Zizak, dagoeneko bukatzeaz daudenak, 30 eurotan saldu zituzten; onddoak, berriz, 20 eurotan, eta ziza-horriak, atzoko merkeenak, 15 eurotan.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Erromeroa	4,00	6,00
Gerbera	12,00	-
Hortentsia	12,00	-
Salbia	1,00	1,20

## Bertako produktua

Onddo	20,00	-
Babak	3,00	4,00
Ibarrako piparrak	7,00	-
Lekak	3,50	4,50
Porrua	1,00	10,00
Azenarioa	1,20	10,00

## Produktu ekologikoak

Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Letxuga	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Arrautzak	3,50	-



Buruhandiek txikiak izutu zituzten. Amaren babesean, ondo. N. URBIZU



lurramendi auzoan sagardo kupela izan zuten sanferminetan. HITZA



Kaia arraindendan zeren iturako arrainak. J. M. OLANO

LEITZA ▶ PILOTA

# Leitzak Herri Artekoa irabazi du Labriten, Uharteren aurka

Leitzarrak nagusi izan ziren Herri Artekoan eta Oinatz Bengoetxeak eta Iñaki Otxandorenak ere irabazi egin zuten



Autobusean Labritera joan ziren Leitza eta Aresoko jarraitzaileak atzo, autobusera igo baino lehen. N. GARZIA

ERREDAKZIOA

Leitzak Herri Arteko Txapelketa irabazi du Uharre-Pamplo-naren aurka. Laugarren norgehiagokan erabaki zen txapela, lehenengo bi partidak erraz irabazi arren (18-2 eta 18-1eko emaitzarekin), hirugarren partidatan tanto bakarra lortu baitzuten. Gauzak honela, Iriartek eta Olazabalek 11 tanto besterik ez zituzten behar txapela lortzeko eta lortu zituzten, norgehiagoka galdu zuten arren, 22-17ko emaitzarekin.

Atzo Labriten Leitzakoentzat egun handia izan zen. Pilota profesionalari dagokionez bi norgehiagoka jokatu zituzten Leitzako pilotariek: goizean, 11:30ean, Bengoetxea VI.ak Otxandorenarekin jokatu eta

irabazi zuena, eta gaueko 22:15etan Barriolak jokatu zuena. Barriolarena Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketaren finala izan arren, eta Bengoetxea VI.arena, San Fermin Txapelketako lehenengo kanporaketa, herri mailan Labriteko ekitaldi nagusia Nafarroako Herri Arteko Txapelketako finala izan zen.

Labrit, jendez gainezka

Herri Arteko Txapelketa ikus-teko eta Labriten leitzarrei animoak emateko 2 autobus ateraz ziren 15:00etan Amazabal Pilotalekutik. 600 bat lagun inguru bildu ziren Labriten. Pakito Sagastibeltza Aurrerako ardura-dunak azaldu duenez, «ikaragarria izandu da. Uharre eta

Iruñea guztitik baino jende gehiago etorri gara Leitzatik». Julian Iparragirre pilota aditua ere Labriteko finalean izan zen; «Horrelako txapelketa bat izateko marka da hainbeste jende biltzea».

TOLOSA ▶ GIZARTEA



## «Konponbiderako errezeta berria» Lokarriren eskutik

**Erredakzioa** ▶ Lokarri herririk herri ari da zabaltzen herri kontsulta baten aldeko herri-ekimena, eta atzokoan Tolosa izan zen aukeratu zuten herria. Hala, Triangulo plazan jarritako mahaian herritarrek ekimen honen alde sinatzeko aukera izan zuten. Lokarri ondorengo helburuekin jarri nahi du abian herri-kontsulta: ETAk biolentzia bazter dezan eskatzeko, bazterkeriarik gabeko elkarrizketaren alde egin arazoak konpontze aldera eta bakean eta demokrazian oinarritutako akordio bat lortzeko beharra azpimarratzeko. NEREA URBIZU

**hitza**  
Praktikak HITZAn irailetik aurrera  
Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziaturerako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua  
Curriculum-a bidali helbide hauetara:  
Araba etorbidea, 5 behea- atzea • 20400 TOLOSA  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
(uztailaren 15a baino lehen)

**ingeniaritza imh** **IMH Ingeniaritza Eskola**  
Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...  
ate irekiak  
**Uztailaren 11n**  
**19:00etan**  
... zator IMH Ingeniaritza Eskola ezagutzera  
zure txanda!  
ikasten ala lanean?  
ikasi eta gainera lan egiten dute.  
Informazioa:  
IMH INGENIARITZA ESKOLA  
Atxue Auzoa, 1  
20610 EL GOBIAR, Gasteiz  
Tel. 943 744 132  
E-mail: ingeniaritza@imh.es  
www.imh.es  
cesi Finantziako OEBB Ingegnari Txulo ofiziala

PATXI ASTIBIA ▶ AIZKOLARI OHIA

# «Aizkoran aritu naizen denboran urte on asko izan ditut»

Garziarena herrian lehenengo aizkolaria ezaguna izan zen arren, Patxi Astibia bera baino gazteago izanik, hagitz ezaguna egin zen gero, eta jokaturako apustu guztiak irabazi zituen

NAIARA GARZIA

Patxi Astibia (Leitza, 1943) 20 urterekin hasi eta 29 urte bitartean aizkolaria profesionala izan zen. Urte horietan jokaturako apustu guztiak irabazi zituen. Bai Euskal Herrian eta bai Estatu Espainiarrean oso ezaguna egin zen. Gerrietako arazo batek bultzatuta, profesional mailako aizkolaritza utzi zuen. **20 urterekin hasi eta 29 urte bete arte horretatik bizitu zinen.**

Bai. 29 urterekin mendira lanera joan nintzen eta egun batean arbol batek azpian harrapatu ninduen eta gerrietan min eman zidan. Orduntxe utzi behar izan nuen. Hortik aurrera erakustaldiak egin ditut.

**Nola hasi zinen aizkolarien munduan?**

Ni mutiko txikia nintzela mendira joaten ginenean saioa eginda etortzen ginen. Gero 16 urterekin jokatu nuen aurreneko txapelketa: Donostiara joan eta irabazi egin nuen. Lehenengo apustua 20 urterekin egin nuen. «Aizkora apustua egin diagu», esan zidaten. 16 kana erditara jokatzeko zen eta nik sekula kana erdirik ez nuen ebaki. «Ni ez nihoak», esan nion. Eta orduan esan zidan, «nahiko txuleta eta oilaskoa emanen diagu». Garai hartan ez baitzen mendian haragirik jaten; bakailaia, urdaila eta baba, hori jaten zen. Eta hantxe joan nintzen.

**Zu hasi zinenean Leitza orain adina kirolari al zeuden?**

Aizkolarien munduan, Leitzako lehenengo txapelketa Garziarena izan zen. Orduan lehenengo aizkolaria ziren Enrike Bildarratz, Migel Iturrarte eta Garziarenaren anaia, Joxe Mari, nire anaia Pello ere aritzen zen... Aizkolaria polit asko zegoen.

**Eta guzti hauek profesional bezala ibiltzen ziren?**

Bai, Zabaletak Garziarena eta Bildarratzekin apustu bana jokatu zituen. Orduan aizkolaria asko zeuden herrian. Behin aizkolarien egun bat egin zuten eta ehundik gora aterazi ziren. Ni orduan ospitalean nengoan, gerriko arazoengatik.



N. GARZIA

**Orduan Leitza jada ezaguna al zen bere aizkolarientzat?**

Leitza ezaguna egin zen Garziarenarengatik. Hemen Euskal Herrian Leitza oso famatua zen, baina ezagunena egin zen ni telebistan ibili nintzenean, *La unión hace la fuerza* saioan. Orduan mundu guztiak ezagutzen zuten Leitza.

**Orduan jendeak diru asko jokatzen al zuen?**

Kantitatea ziur ez dakit, paperetan kantitate bat jartzen du baina gero ez dakit dena jokatuko duten. Nire garaian normalean izaten zen 20.000 duro jokatzea. Garai hartan dirua zen. Batzuk kantitate hau baino diru gehiago jartzen zuten paperetan, baina ez dut uste dena jokatuko zutenik.

**Orain eta lehenagoko apustuak aldatu egin dira?**

Lehenengo apustu gutxi jokatzen ziren eta orduan jende

gehiago joaten zen. Orain herri-kirolak gehiago daude, txapelketak direla, jaialdiak direla... saltsa handia dago. Aizkora noiznahi ikusten ditugu eta lehen adina jende ez da joaten. Orduan apustua zenean base-eritarrak eta denak hantxe izaten ziren. Azkeneko apustuan, Arriak eta nik jokatu genuenean, 4000 lagun ziren Donostiako Belodromoan. Orain, azkeneko aldi hartan Olasagastik eta Mindegiak jokatu zutenean, hor jende asko zen. Baina gaur egun jende gutxiago joaten da.

**Orduan plazatan ze giro izaten zen?**

Ordungo giroa ezberdina zen. Gogoan dut behin Donezteben apustu bat jokatu nuela eta goizean joan nintzen hara, eta ordurako dena beteta zegoen: denak han gosalduta eta kriston tenplean zenbiltzan. Aizko-

ra apustua jokatu, jende guztiak bazkalduta eta ilunabarrean ere atari guztiak beteta zeuden oraindik. Denak erotuak ibiltzen ziren.

**Apustuak edo txapelketak nahiego zenituen?**

Apustuetan konpromiso gehiago izaten da, eskuz esku izaten baitira. Txapelketan, berriz, koadrilan izaten zara eta errazago pasatzen da.

**Banaka edo binaka. Nola aritzen zinen gusturago?**

Ni bietan gustura aritzen nintzen, baina bakarrik nahiego nuen.

**Telebistan parte hartu eta gero Estatu Espainiarrean ezaguna egin zinen. Ze lekutan ibili zinen?**

Malagan, Marbellan, Bartzelonan, Mallorcan... Erakustaldiak egiten nituen eta oso gustura ibili nintzen, bidenabarrean baztarrak ikusten dituzu eta. Gainera orduan gaztea nintzen. Mallorcakoek gonbidatu egin ninduten aste bat pasatzea, eta hantxe egondu ginen. Egund hartan abioiean zihonak *Turista 2 millones* izan behar zuten, hau da, 2 milioigarren turista, eta bazekiten ni nihoala egund hartan eta ni izendatu ninduten *Turista 2 millones*. Harekin 2 milioi turista osatu zituzten.

**Mallorcan ze harrera egin zizuten?**

Ikaragarritzko festa prestatua zeukaten han. Aizkolaria bezala gonbidatu ninduten eta gero gainera erakustaldi batzuk egin nituen. Jendearen aldetik oso harrera ona izan nuen. Nik berriz, erdaraz hitz egiteko kasik indarra egin behar izaten nuen, eta aurrenean kriston apuroak pasatzen nituen.

**Gauza arrotzak izanen ziren zuretzako, ez?**

Bai. Aurreneko aldiz Madrilera joan ginenean aizkora hasi baino ordu bete lehenago makillajea eman behar zidatela esan zidaten. Neska batzuk gela batean zeuden eta ni, ez nintzela sartuko hara. Nahitaezkoa zela eta nik, ezetz. Azkenean beste batzuk sartu ziren aurrenean eta ikusi nuen zer egiten zieten eta azkenean sartu nintzen. Beldurra ematen baitzidan. Ni ordurarte menditik ez nintzen atera,

eta aurrenean kriston nerbioak pasatzen nituen horrelako lekuetan.

**Ospeak ze eragin izan zuen zuregan?**

Erriberan, adibidez, ikaragarria izandu zen. *La unión hace la fuerza* programako intelektuala Tuterakoak ziren eta honontzerakoan han sartzen ginen mikrobus batekin eta taberna batetara joaten ginen. Bazekiten ze ordutan iristen ginen eta plaza bete beteta egoten zen. Han kriston lanak izaten genituen, denak autografoak behar eta autografoak behar. Igual 2 ordu egiten nituen autografoak sinatzen eta azkenean polizi tartean ateratzen nintzen, poliziak bidea eginda. Esplicituta ezin daiteke sinistu. Hemen ere autografoak sinatzen nituen, erakustaldietan. Mutiko kozkorrak eta neskek pilaka etortzen ziren. Oso polita izandu zen.

**Eta egunkariletan elkarrizketa asko egiten al zizkizuten?**


Egunero mordoska bat. Kazetari pila bat etortzen ziren honera, egunero, eta ni azkeneko aspertu egiten nintzen eta mendira alde egiten nuen, eta menditik etortzerako hortxe egoten ziren Arakindegian, 2 edo 3, esperoan. Eta Arakindegiko Karmenek esaten zidan, «egun guztia hemen egon beharko duzu», eta «ez, ez alde egin behar dut».

**Momentu bat edo aukeratu beharko bazenu?**

Aizkoran aritu naizen denboran urte on asko izan ditut. Aurreneko aldiak txapelketa egin zenekoa, adibidez. Aurrenean Latasaren aurka aritu nintzen, lau kanakoetara. Latasa zen jainkoa eta maisua... Nik berriz banekien aizkolaria handia zela baina menderaezina ez zela pentsatzen nuen nire artean. Lau kanatakoka jokatu eta irabazi egin nion. Gero apustua irabazi eta handik 40 egunetara edo txapelketa antolatuta zuten Donostian, eta hura izan zen irabazi nuen lehenengoa. Gero mendira nihoan lanera eta jokatzeko konbentzitu egin ninduten eta 20 kana erdiko marka egin nuen. 40 minutu eta 33 segundu egin nituen aizkora zaharrekin.



**4.000 pertsona herriko plazan.** 4.000 pertsona bildu ziren Sarrio fabrikak antolatu zuen lehenengo txapelketan. Astibiarekin batera Arria, Mindegia, Latasa eta Usategieta aritu ziren. Patxi Astibia irabazi zuen txapelketa eta dozena erdi kopa lortu zituen, kategoriaz ezberdinetan. Argazkian, Patxi Astibia, telebistako kamara eta jendea atzean dituela, baita Sarrioko garai hartako publizitatea ere. HITZA



**Garziarena eta Astibia.** Leitzako beste aizkolari handiarekin, Garziarenarekin, Leitzan jokaturako bigarren txapelketan. HITZA



**16 urterekin.** Patxi Astibia Donostian 16 urte zituela, Konstituzio Plazan, jubenetako lehenengo txapelketan. HITZA

## LEITZA ▶

## ‘La union hace la fuerza’ programaren garaiak

Astibia telebistako saio honetan parte hartu zuen, 1965. urtean, aizkolari bezala

N. GARZIA

**P**atxi Astibia 1965. urtean telebistan *La union hace la fuerza* saioan ibili zenean. Orduan Leitzan 4 edo 5 telebista besterik ez zeuden. Sekretarioek bat zuten, beste bat farmazeutikoen Gogorzaundin eta gero fabrikeko arduradunek. «Prointzia bakoitzetik kirolari bat behar zuten eta gainera 5 intelektual biltzen ziren eta haiei galderak egiten zizkieten. Haiek huts egiten bazuten kirolariak hainbeste denboran marka bat egin behar izaten zuten», dio Patxi Astibia.

Patxi Astibia gogoan du programa honetan parte hartzeko proposamena nola egin zioten. «Iruñera joan omen zen Pello Zabaleta alkatea eta han bazkaltzen ari zela hola eta hola ari omen ziren gizon batzuk hizketan. ‘Ze lastima, Nafarroak ez du kirolaririk. Programarako kirolariak behar ditugu eta Nafarroak ez du’. Orduan alkatea haiekin hitz egiten hasi zen, harek bazuela kirolaria. Gero Iruñean Madrilgo telebistakoekin mintzatu ginen eta horrela egindako programa bat izan zen».

Mikrobus kozkor batean joaten ziren denak Madrilerik: intelektualak, Patxi Astibia eta bere masajista. Programa gauean izaten zen, ordubeteko iraupena zuen eta zuzenean botatzen zuten. Gaua han pasa eta hurrengo egunean itzultzen ziren denak. Patxi Astibia aurrena 3 saio egin zituen eta gero beste 2 edo 3. «Herriko jendea telebista zegoen tokietan biltzen zen, ahal zuten bezala, pillean jarrita. Hemen aizkora ezagutzen zuten, baina Madril alde horretan ez zuten ezagutzen, eta han ikaragarriko oihartzuna izan zuen. Ez zuten sinisten horrela egurra ebaki zitekeenik. Gainera egurrak politikak baitziren, txikiak. Azkenekoa 22 segundutan moztu behar izaten nuen. Denbora justua nuen eta hor izaten ziren komerikak». ◀

### TXAPELKETAK ETA APUSTUAK ▶ TXAPELAK

#### APUSTUAK

**1963/03/03.** Sarratearen aurka, Donezteben.

**1964/06/28.** Ceberioaren aurka, Tolosan.

▶ Tolosan osotara 4 apustu.

**1967/10/22.** Berakoetxearen aurka, Tolosan.

**1968/03/31.** Latasaren aurka, Tolosan.

**1971/03/21.** Arriaren aurka, Tolosan.

**1974/03/17.** Arriaren aurka, Donostian.

▶ Hauek dira Astibia jokaturako apustu guztiak eta

denak irabazi zituen, ondorengo txapelketak bezala.

#### TXAPELKETAK

**Donostian.** Espainiako Txapelketa, 1968. urteko apirilaren 21ean.

**Leitzan.** Vasco-Navarra

izenekoa, 1968. urteko apirilaren 24ean.

**Iruñean.** Espainiako Txapelketa, 1969. urteko uztailearen 6ean.



**Leitzan.** Vasco Navarra izenekoa, 1971. urteko apirilaren 25ean.

**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko uztailaren 8a, igandea ▶ V. urtea**

GAURKO EGURALDIA

goizez  arratsaldez  beroena **18** hotzena **14**

BIHARKO EGURALDIA

goizez  arratsaldez 

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
 (zalantzarik argitzeko, harpidedun egileko...)

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Alurr dantza taldeak jaietan, abuztuaren 23an, sokadantza egiteko entseguak antolatut ditu. Hilaren 10ean izango da hurrengo entsegua, 20:30ean egoitza zaharrean. Herritar eta gazte guztiak daude gonbidatuta.  
**Leitza.** Arkupeak jubilatut elkarateak hainbat irteera antolatut ditu uztailaren: 23an eta 24an Lourdesera, 26an Aralarra Aiton-amonen Egutera (bazkaria eta dantzaldia) eta 28tik abuztuaren 1era Pirinioetara. Izen-ematea, elkartean.  
**Villabona-Aiztondo.** Ostargi elkarateak kanpaldia antolatut du Mundakan Zizurkilgo eta Villabonako 13-16 urte bitarteko gazteentzat hilaren 10etik 16ra. Prezioa: 35 euro. Izen-ematea, Zizurkilgo Aurrera plazako udal bulegoetan edota 943 692495 zenbakian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
**Goizueta.** Apeztebea, LM. Kale Nagusia, 64. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.

**Bihar**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Brote, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Arropa azokaren bidez, laguntzeko eta haien etxea ezagutzeko**

**TOLOSA** ▶ Ereitek asteburuan zehar bere eraikin berrian azoka bixia jarri du. Bertan ateratako diruarekin haien proiektuak aurrera eramateko laguntza izango dute, eta bestalde, «momentu politik igarotzeko eta gure eta zuen etxea ezagutzeko» bide bezala erabili dute. San Estebanen dagoen eraikinean (Langai ondoan) gaur ere izango dira 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Azokan dagoena, orokorrean arropa da: elastikoak, gerrikoak, galtzak, berokiak, bainujantziak, poltsak, diru-zorroak, oinetakoak... Denak ere oso prezio interesgarriak: dena euro batera, bira edo hirura dago. Bide batez, laguntzeko aukera duzu, gainera. NEREA URBIUZ

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**

**Egin zaitetz harpidedun!**

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

**Harpidedunen txokoa**

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**honekin**  
 TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
 hea

**kanikak**  
 San Frantzisko, 21 • Tolosa  
 Tel.: 943 65 27 46

**ILUMINAZIOA**

**Avalon**  
 o s a g a i a k  
 korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**MUGAR**  
 Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
 Tel.: 943 65 56 85  
 Pablo Gorosabel, 28 • TOLOSA  
 943 65 40 37

**LIZARRIBAR**  
 OINETAKOAK  
 Arostegieta kalean  
 TOLOSA

**SHANTI KIROLAK**  
 Rondilla, 11  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero